

## **Patxi Xabier Aristimuño Osoro doktore-tesia irakurri du**

2012/01/27

Arrasaten urtarrilaren 17an, goizeko 12:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Patxi Xabier Aristimuño Osoro Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Polo Garaian. Tesiaren izenburua Mikrofresaketa prozesuaren fidagarritasuna mugatzen duten aldagaien azterketa teoriko/praktikoa da eta tesi zuzendariak: Mondragon Goi Eskola politeknikoko Pedro Jose Arrazola y Ivan Gallego.

Epaimahaia horrela osatu zen:

Dr. D. JAVIER ARANCETA AGUIRRE (Mondragón Componentes)  
Dr. D. MIKEL ZATARAIN GORDOA (Ideko)  
Dr. D. TAKASHI MATSUMURA (Tokyo Denky University)  
Dr. D. VICENTE ZUGASTI (Aotek S. Coop)  
Dr. D. ENDIKA GANDARIAS MINTEGUI (Mondragón Unibertsitatea)

Tesi honen helburua mikrofresaketaren fidagarritasuna hobetzea da. Forma konplexu dun pieza oso txikiak kopuru txiki eta ertainetan era ekonomikoan ekoizteko prozesu egokia da mikrofresaketa. Tesi honetan zehar MUko mikromekanizazio laborategia martxan jarri da eta mikrofresaketa prozesuaren zehaztasuna areagotu, gainazal zimurtasuna hobetu edo erremintaren bizi iraupena luzatzea eragiten duten aldagaiak aztertu dira era teoriko eta praktikoan.

MU-ko laborategian, 0.1 mm-ko zuloak edo 0.1 mm zabalerako artekak eta detaileak zehaztasun handiz era fidagarrian egin daitezke material mota askotan (altzairu, titanioa, plastikoak,...)



Patxi Aristimuñoren tesia